ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2021IPLE0003**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2021-05-04ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2021eko maiatzaren 4ean, arratsaldeko 19:35etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Mikel Galarza Arrue
- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2020KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA
4. KONTRATAZIO ZENTRALA: JASOGAILUEN ESPEDIENTEA
5. ALBIZTURKO ELIZA INGURUNEA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ONARPEN, PLEGU EKONOMIKO ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA TEKNIKOEN ONARPEN ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA IREKITZEA ONARTZEA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ
6. AZAROLA GOIKOAKO OBRAK
7. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2021-03-09ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2021eko 15 eta 40 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2020KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Alkateak 2020ko 30/2021 likidazio dekretuaren berri eman du.

2020ko emaitza 20.577,94 €-koa izan da.

2020ko diruzaintzako gerakin gordina 270.614,64 €-koa da eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 263.881,21 €-koa.

Albizturko udalaren zorpetze maila %10,49koa da.

4. KONTRATAZIO ZENTRALA: JASOGAILUEN ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, jasogailuen kontratazio espedientea berritzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Orain arte udaletxe eta eskolako igogailuen mantenimendua izan dugu kontratatuta, eta mantentzeko asmoa dago.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Jasogailuen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

5. ALBIZTURKO ELIZA INGURUNEA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ONARPEN, PLEGU EKONOMIKO ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA TEKNIKOEN ONARPEN ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA IREKITZEA ONARTZEA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko eliza ingurunea hobetzeko urbanizazio proiektuaren kontratazio espedientearen onarpena, 122.663,92 €, gehi % 21eko B.E.Z., eta 12 asteko ejekuzio epearekin.

Bigarrena.- 148.423,34 €-ko gastuaren onarpena, 2021 ekitaldiko 1.160.00.601.01 2021 kontu sailaren kontura.

Hirugarrena.- Plegu ekonomiko administratibo partikularren eta teknikoen onarpen eta adjudikazio prozedura irekitzea onartzea, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez.

Laugarrena.- Adjudikazio prozedura irekitzea eta lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea 20 eguneko epeaz, proposamenak aurkeztu daitezen.

6. AZAROLA GOIKOAKO OBRAK

2021eko aparilaren 12an, Albizturko Udaleko idazkari kontu-hartzaileak eta arkitektoak inspekzio bat burutu zuten Azarola Goikoako obretan baimenik gabe burutu dituzten lanak ikusi eta aztertzeko.

Baserri ondoan lur mugimendu handi bat egin dute eta aurrikusi gabe zegoen eskoilera bat eraiki dute.

Bilera antolatu dugu Azarola Goikoako jabeekin azalpenak eman ditzaten eta legalizazio prozesua has dezaten.

Horrela ez bada, Albizturko Udala beste mota bateko neurriak hartzera beharturik egongo da.

7. GALDERA ERREGUAK

- Albizturko AU3 industrialdea B-ren Hiri Antolamendu Plan Berezia: Eusko Jaularitza eta Ura Ur Agentziaren baimenak jaso dira, eta Alkatetza Dekretu bidez emango zaio hasierako onarpena.

- Albizturko HAPO-ren (PGOU) xedapen aldaketa: Aitor Gabilondo (abokatua) eta Yoseba Maroto (arkitektoa) aldaketen erredakzioarekin hasiko dira.

- Marea Gaineko Bidearen Publifikazio Hitzarmena: Prest daude hitzarmenaren borradorea eta planoak. Jabe guztiekin bilera egingo da adostasuna lortu eta hitzarmena osatzeko datu pertsonalak eta eskrituren nota sinpleak eskatzeko.

- Udalekuak: Maiatzak 17an bilera egingo da guraso elkartearekin udalekuei buruz hitz egiteko. Aurten 3 asteko udalekuak antolatzeko asmoa dago, eta gurasoen artean galdetegi bat pasako da datorren urtean 4 astetara luzatzeko beharra aztertzeko.

- Hondakinen bilketa sistema: Hautetsien artean zalantzak daude martxan jarri beharreko hondakinen bilketa sistemaren inguruan. 2 konpost gune jarri edo organikoarentzako kontenedoreak jartzearen artean ekonomikoki dagoen aldea aztertuko dugu erabakia hartzeko.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

KONTUEN BATZORDE BEREZIA

1.- 2020ko Kontu Orokorraren txostenaren argitalpena onartzea.

Kontuen Batzordeak aho batez honakoa onartu du:

Lehena.- 2020ko Kontu Orokorraren txostena jende aurrean jartzea eta GAOn horren berri ematea.

Osoko bilkura, 21:05tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2021eko maiatzaren 5ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 11:58:50 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:04:27 +02'00'